



# **MAHASTI ERREGISTROKO PROZEDURA BERRIAK, 2016KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA INDARREAN**

Abuztuaren 1ean argitaratu zen EAOean 740/2015 Errege Dekretua, mahastizaintzako ahalmena arautu eta 1079/2014 Errege Dekretua aldatzen duena, mahastizaintza sektoreari laguntzeko 2014-2018 laguntza programako neurriak aplikatzekoa.

Errege Dekretu berri horrek aldatu egiten du LANDAKETA ESKUBIDEEN ohiko sistema eta LANDAKETA BAIMENEN sistema ezartzen haren ordeztu, eta funtsezko aldaketa dakar MAHASTI ERREGISTROko prozeduretan; **2016ko urtarrilaren 1etik aurrera** izango da indarrean aldaketa.

Hona hemen zeintzuk diren prozedura berri horiek eta zer urrats dakartzaten berekin:

## **MAHASTIA KENTZEKO:**

1. **MAHASTIA KENTZEKO ESKAERA:** Ardo Etxean; hark egiaztatuko du eskaerari dagokion finkan egiaz dagoela mahasti produktibo bat.
2. Egiaztapen horrek berekin dakar **MAHASTIA KENTZEKO BAIMENA;** hain barik EZIN da mahastia kendu.
3. Behin baimena jaso ondoren, **EKIN AHAL ZAIO** mahastia kentzeari.
4. Behin erauzketa egin ondoren, **JAKINARAZI** egin behar zaio Ardo Etxeari.
5. Behin lursailean bertan egin beharreko egiaztapenak egin ondoren (mahastia kendu den sailak zer eremu hartzen duen), **MAHASTIA KENTZEARI BURUZKO EBAZPENA** emango da.

## **GARRANTZITSUA: AURREKO PROZESU HORI GUZTIA MAHASTIZAINZAKO KANPAINA BERAREN BARRUAN GAUZATU BEHAR DA**

## **BIRLANDAKETAK EGITEKO:**

1. BIRLANDAKETA BAIMENAREN ESKAERA: **epea: mahastia kentzeari buruzko ebazpena jakinarazi ondoko bigarren kanpaina amaitu arte**
2. BIRLANDAKETA BAIMENARI BURUZKO EBAZPENA:
3. JAKINARAZPENA: nekazariari. Baimenak 3 urtean iraungo du, jakinarazpena egiten denetik kontaktzen hasita.
4. BIRLANDAKETA JAKINARAZTEA: lursailean bertan egiaztatzen da zuzen egin dela eta zer eremu hartzen duen.